

Euskadiko eszenario demografikoak, 2017-2061

Enrique Morán Aláez / Estatistika Soziodemografikoen Arloaren arduraduna / EUSTAT

Maria Victoria García Olea / Produkzio eta Estatistika Analisiko zuzendariordea / EUSTAT

ESZENARIO DEMOGRAFIKOAK

Epe ertain eta luzerako eszenario demografikoak estilo-ariketa bat baino zerbait gehiago dira, eta ohikoak dira estatistika-bulegoen jardunean. Fenomeno demografikoen bilakaerak (heriotza-tasa, ugalkortasuna eta migrazioak) biztanleriaren tamainan, hazkundearen osagaietan eta adinaren arabera egituran izandako ondorioak egiaztatzeko balio dute. Kasu honetan, EAEko eta bertako lurralde historikoetako biztanleriaren etorkizunerako sei eszenario eraiki dira (2016-2061 aldia).

Eszenarioen definizioa

Eszenarioak eraikitzeke orduan, fenomeno demografikoek epe luzera izango duten bilakaerari buruzko hipotesi zentral bat formulatu da. Era berean, beste hipotesi batzuk proposatu dira fenomeno demografiko horietako bakoitzaren inguruan. Hipotesi zentralen erreferentzia-puntua Eustatek 2016-2061 aldirako EAEko eta bertako lurralde historikoetako biztanleriaren inguruan egindako proiektzioa da. 2061era arte luzatu dira proiektzio honetan aurreikusitako heriotza-tasak, ugalkortasunak eta migrazioek etorkizunean izango dituzten bilakaera-joerak. Heriotza-tasaren inguruan beste bi hipotesi formulatu dira: bata heriotza-tasaren hobetze-erritmoa apalagoa izango dela dio eta besteak bizitza luzeagoa izango dela dio, hipotesi zentralean bildutako bilakaerarekin alderatuta. Ugalkortasunaren arloan gauza berdina egiten da, hau da, hipotesi ertaina oinarri hartuta, ugalkortasun-maila gehiago edo gutxiago berreskuratuko dela dioten hipotesiak formulatzen dira. Azkenik, migrazioen kasuan epe ertain eta luzerako migrazio-saldo garbiari buruzko bi hipotesi proposatu dira, faktore demografikoak eta lan-arloko parte-hartzea erlazionatuz.

Heriotza-tasa, ugalkortasun eta migrazioei buruzko hipotesiak konbinatu egin dira, bost eszenario alternatibo eraikitzeke, erreferentziako eszenarioaz gain (1. taula). "Erreferentziako" eszenarioa fenomeno demografikoen bilakaerari buruzko hipotesi ertainak oinarri hartuta sortu da. 2016-2031 aldirako biztanleria-proiektzioaren luzapen modura hartzen da eta gainerako eszenarioak itxuratzeke erreferentzia-esparrua osatzen du. "Var1" eta "Var2" eszenarioetan immigrazioari eta emigrazioari buruzko hipotesi ertainak erabili dira eta heriotza-tasari eta ugalkortasunari buruzko hipotesi alternatiboak txandakatu dira: "Var1" eszenarioan ugalkortasun handiari buruzko hipotesi altua eta bizi-itxaropen txikiaren konbinatu dira; eta "Var2" eszenarioan, aldiz, kontrako egin da eta ugalkortasun txikiaren hipotesia eta bizi-itxaropen handiaren konbinatu dira. "Mig1" eta "Mig2" eszenarioak ugalkortasunari eta heriotza-tasari buruzko hipotesi ertainetan oinarritzen dira. Erreferentziako eszenarioaren migrazio-saldoa aldatu da 2031. urtetik aurrera, lan-partaidetzaren tasa altua lortu ondoren, faktore demografikoak 1 milioi landun (Mig1) edo 15 urtetik gorako langabe bakoitzeko landun bateko ratioa lortzeko (Mig2). Azkenik, eszenario instrumental bat sortu da, heriotza-tasari eta

ugalkortasunari buruzko hipotesi ertainetan oinarritua, eta baita migrazioerik gabeko ustezko kasuan oinarrituta ere (NoMig). Helburua biztanleriak hazteko duen gaitasun “endogenoa” egiaztatzea da eta aldi berean, emaitzak beste eszenario batzuen emaitzekin alderatuz gero migrazioek eszenario horietan duten eragina neurtzea ahalbidetzen du.

1. taula: EAEko eszenario demografikoen parametroak.


	Ikusitakoa	Agertokia					
		Erreferentzia	Var1	Var2	Mig1	Mig2	NoMig
Bizi-itxaropena Gizonak	80,3	83,7 88,8	82,8 85,8	84,5 91,8	83,7 88,8	83,7 88,8	83,7 88,8
Bizi-itxaropena Emakumeak	86,2	88,8 92,2	87,8 89,2	89,6 95,2	88,8 92,2	88,8 92,2	88,8 92,2
Emakume bakoitzeko batez besteko haurren kopurua	1,36	1,53 1,72	1,59 2,03	1,47 1,39	1,53 1,72	1,53 1,72	1,53 1,72
Migrazio-saldoa (bost urteko batez bestekoa)	12.973	29.505 39.247	29.542 37.584	29.499 41.070	29.505 58.640	29.505 67.795	0 0

Biztanleriaren bilakaera

Mende-aldaketak haustura ekarri zuen euskal populazioaren bilakaeran, eta aurreko bi hamarkadetako joera demografikoari buelta eman zitzaion eta hazkunde demografikoari ekin; hala, 2,18 milioi biztanleko maximoa lortu zen 2012an, batez ere atzerrikako etorreraren eta jaiotza-tasa berreskuratu izanaren eraginez. Orintsu, hazkunde naturalaren zeinua alderantzizatu egin da eta kanpoko sarrera-fluxuak asko jaitsi dira. Ondorioz, biztanleria pixka bat murriztu da eta ondoren egonkortu egin da 2,17 milioi egoiliarretan gelditu arte, 2016 hasieran.

Erreferentziako eszenarioan EAEko biztanleria osoaren egonkortasun erlatiboa azaltzen da eta epe luzerako zifra 2,2 milioi pertsonakoa da gutxi gorabehera (1. grafikoa). Var1 eta Var2 eszenarioek bilakaera erakusten dute eta biztanleria kopuru osoa erreferentziako eszenarioaren parekoa da, ustezko migrazio-kasu berdinean oinarritzen direlako. Biztanleria kopuru oso horiek izugarri aldatzen dira adinaren arabera egituraren eta ez lirateke nahikoa izango epe luzera okupazio bolumen edo ratio jakin batzuk bermatzeko, horretarako migrazio-fluxu handiagoa behar baita eta ondorioz, biztanleria 2,35 edo 2,42 milioira bitartean haztea, Mig1 eta Mig2 eszenarioek 2061. urterako erakutsitako emaitzetan ikus daitezkeen bezala. Migrazioerik gabeko eszenarioarekin alderatuz gero (NoMig), zeinak 2016 eta 2061 bitartean 430.000 pertsona gutxiago egongo direla baitio, oraingo biztanleria-zifrak mantentzeko migrazioek biztanle asko ekarri behar dituztela ikus daiteke. Izan ere, eszenario guztien kasuan hazkunde begetatibo negatiboa ikusten da, murriztuz doana, urte guztietan.

1. grafikoa: EAEko biztanleriaren bilakaera eta proiektzioa eszenario demografiko desberdinen arabera, 1976-2061.



Biztanleriaren egitura adinaren arabera


Adin-talde handietan, biztanleriaren bilakaerak joera estrukturala erakusten du, adin-multzo batetik bestera tamaina-diferentzia handia dagoelako.

- 0 urtetik 14 urtera bitarteko biztanleria: 210.000 (migraziorik gabeko eszenarioan)-345.000. Erreferentziako eszenarioan, 299.000 pertsona, hasieratik gertu (-6.500). % 13,6 izango lirateke (-0,4 puntu).
- 15 eta 39 urte bitarteko biztanleria: 373.000-606.000 pertsona, aldiaren amaieran, migrazioen arabera. Erreferentziako eszenarioa: 542.000 (-45.000), eta, beraz, % 24,6 (-2,4 puntu).
- 40 eta 64 urteko bitarteko biztanleria 2061ean: 476.500-714.500. Erreferentzia: 624.500 (-190.000) . Beraz, % 28,4 (-9,1 puntu).
- 65 eta 84 urte bitartekoak: 590.000-600.000 izango dira 2047an, eta, ondoren, kontrako joera etorriko da. 2061ean, erreferentziako eszenarioaren arabera, 481.000ra igoko lirateke, 429.000-496.000ko aldaketa-tartearekin. % 21,9 izango lirateke (+3,9 puntu).
- Amaitzeko, 85 urtetik gorako biztanle kopurua izugarri hazi da belaunaldi horiek jendetsuagoak direlako, bizitza luzeagoa delako eta hain justu belaunaldi horiek direlako orain urte gehiago bizi direnak. 2061ean, 205.000 eta 303.000 artean izango dira, 254.000ko erreferentziarekin (+180.000) eta 11,6ko portzentajearekin (+8,2 puntu).


2. grafikoa: EAEko biztanleriaren bilakaera eta proiektzioa adin talde handietan banatuta eta eszenario demografiko desberdinen arabera.

● Registro Var1 Var2 Mig1 Mig2 NoMig Referencia


15 urtetik beherakoak




15 - 39 urtekoak



40 - 64 urtekoak



65 - 84 urtekoak



85 urte edo gehiagokoak

